

# Osoko bilkura

Baionako Euskal Museoan,  
2013ko abenduaren 20an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Charritton, Piarres,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Kaltzakorta, Jabier,  
Lakarra, Joseba,  
Lizundia, Jose Luis,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun eta Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Iñigori; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Batzarra Baionako Euskal Museoan hasi da 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren abenduko Osoko batzarrari hasiera eman dio eta eguneko egitaraua aurkeztu du.

**1. Osoko bilkurako (2013-11-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz**

Bidaliriko behin-behineko bilera-agiari hainbat iruzkin eta zuzenketa egin

zaio. Ohar eta zuzenketak bilera-agiriaren 3. eta 4. aztergaiei buruz jasotakoei dagozkie. Ondorioz, gainerako atalak bere horretan onartu dira.

3. aztergaian jasotakoari lau ohar egin zaizkio. Horietako bi, P. Salaberrik egini-koak dira, eta ohar bana, B. Oihartzabalek eta J. L. Lizundiak idatzi dute.

P. Salaberrik etortzerik izan ez duenez gero, E. Osa idazkariordeak irakurri ditu hark bidaliriko oharrak.

2. orrialdeko azkeneko paragrafoaren hasieran, ematen du hizkuntza eranskariez P. Salaberrik jardun zuela, hala ez denean. Hor azaltzen dena X. Kintanak esan zuela argitu da. Era berean, jende izenetan, dokumentazioa dugunetik, emakumezkoak eta gizonezkoak bereizten direla nabarmendu du. Horiek horrela, pasartea honela geratu da:

«X. Kintanak esan du hizkuntza egitura eranskaria duten gainerako hizkuntzen antzera, euskarak ez duela genero gramatikalik bereizten, eta, horregatik, ez dagoela hitzen morfologian horiek maskulinoztat zein femeninoztat jotzeko inolako ezau-garririk. Halere, badira, hitz edo izen batzuk jendeari sexu baterako edo besterako egokiago iruditzen zaizkionak, estatistika lekuko».

B. Oihartzabalek, bere aldetik, Onomastikako kontuez ez zuela ezer adierazi nabarmendu du. Ondorioz, «B. Oihartzabalek Frantziako legeak pertsona-izenei ez diela sexu-bereizketa ongi markatzea eskatzen azpimarratu du» esaldia ezabatzea erabaki da.

J. L. Lizundiak 3. orrialdeko bigarren paragrafoaren hirugarren lerrotik aurrera bere ahoan jarritakoa ez dagoela zuzen esan du. Ondorioz, testu zati hori honela geratu da: «J. L. Lizundiak Ama Birjina izenetan –a kentzeko dagoen ohituraz mintzatu da, adibidez, *Liernia* “*Lierni* edota *Goiuria*” *Goiuri*. Ondorioz, zeintzuk diren –a organikodunak eta, zeintzuk artikuludunak, hots, “-a”dunak eta zerrendan, bere ustez, izen osoaz agertu beharrekoak».

Segidan, 4. aztergaian jasotakoari eginiko zuzenketak aztertu dira. M. Azkaratek dio bilera-agiri proposamenean Gramatika batzordeak eginiko proposamenaren edukiaz ez dela inolako argibiderik ematen, A. Urrutiak eginiko proposamenaz, ordea, azalpen luzea jasotzen da. Ondorioz, bi bide proposatu ditu; Gramatika batzordeak eta A. Urrutia euskaltzainak proposatutakoaz testuak orekatzea, aipamen txiki batzuk mantenduz eta, bilera-agiriaren eranskin gisa, bi proposamenak jasoz; edo, bi proposamenak era orekatuan jasotzeko asmoz, Gramatika batzordeak proposaturikoa laburbiltzea. Azkenean, Gramatika batzordeak eta A. Urrutiak propo-

satutakoen gainean testuak orekatzea erabaki da, A. Urrutiak eginiko proposamena maila berera ekarriz. Era berean, paragrafo horren ostean, zera gehitzea onartu da: «Osoko bilkuran gaur banatu diren bi dokumentuak Barne jardunaldietako materialarekin batera argitaratuko dira».

P. Salaburuk 3. paragrafoko lehen esaldia honela jasotzea eskatu du: «...A. Urrutiaren proposamen horren berri eman zuela eta gutuna denen aurrean irakurri zuela,... ». Horixe izan baitzen berak esanikoa. Onartu da.

Hurrengo orrialdean, «Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan... » hasten den paragrafoa osorik beste testu batengatik ordezteko eskatu du. Hona hemen: «Pello Salaburuk esan du testuaren izenburuan ez dela aipatzen “gramatika” hitza, baina barnean –beste hizkuntzetan egindako antzeko lanak aipatzen direnean– egingen diren erreferentzia guztiak gramatikaren erreferentziak direla: hiru espainolarenak eta bat euskararena. Orain arte EGLUn egindako lana deskribatze hutsa izan dela gaineratu du Salaburuk, teknizismorik gabekoa, eta aipatzen diren erreferentziako beste liburu horiek askoz ere teknikoagoak direla esan du. Adibide argigarri batzuk ere irakurri ditu, liburu horietatik hartuak. EGLU berrikusi eta osatu behar dela esan du, kapitulu batzuk osorik aldatu behar direla, eta orduan bakarrik egin daitekeela liburu laburragoa, eta lan hori Gramatika batzordeari dagokiola. Hala egin dela hizkuntza guztietan, eta ez duela hizkuntza horietan alderantziz egindako adibide bat bera ere ezagutzen. Galdetu du ea inork ezagutzen duen non egin den lehenik liburu laburra eta gero luzeagoa. Halaber, esan du Gramatika batzordeak eskatzen duela gaia alde batera edo bestera gaur erabakitzea, luzamendu gehiagotan ibili gabe». Testua ordeztea onartu da. Ondorioz, ondoren datorren paragrafoa ezabatu egin da.

B. Oihartzabalek bere izenean ageri den testuaren ordezkari beste bat jartzea proposatu du. Hona hemen: «B. Oihartzabalek dudatan ematen du A. Urrutiaren proposamenari jarraikiz lan serioa egin daitekeen. Haren ustez, proposamen horrek ez ditu lan akademikoak behar bezala egiteko premia baldintzak ematen. Lau euskaltzain osoren inguruan eratu batzorde berri batek, hutsetik hasiz, bizpahiru urterik barne, 2016an, Euskaltzaindiaren oinarrizko gramatika ateratzea, kapituluka euskaltzain osoei aurkeztu eta haiekin osoko eztabaidaturik, ezinezkoa iruditzen zaio. Ez behintzat lan serioa eginik». Onartu da testua ordeztea.

Paragrafo berean, P. Salaberrik «beraren ustez egun...» «...bere ustez» behar duela nabarmendu du. Azken iruzkin hori ere onartu da. Hurrengo paragrafoa ezabatzea erabaki da Osoko bilkuran.

Hurrengo paragrafoaren amaieran, esaldi bat gehitzea eskatu du P. Uribarrenek. Honako hau: «Era berean, esan du bi proiektuak bateragarri direla, Batzorde Ahaldunduan Gramatika Batzordeko bi kide izatea eta lan bateratua egitea proposatu baita». Onartu da eginiko gehitzea.

Hurrengoan, M. L. Oñederrak ondoko hau gehitzea eskatu du: «hitz egiteko moduari dagokionez, errespetua eskatu du, euskaltzainburuaren kasuan batez ere». Paragrafo berean, J. L. Lizundiak honakoa gehitzea falta dela azpimarratu du: «Barne-erregelen 67.2 artikulua aipatuz, erakunde ofizialetan ohi denez, euskaltzainburua ohargile legez eztabaidan aritzen denean, moderatzaile lana, Zuzendaritzako kide baten esku laga beharko lukeela uste du». Paragrafo honi eginiko bi oharrak txertatzea onartu da.

Hurrengo paragrafoan («Gaur bertan bozkatzeari...»), J. L. Lizundiak esanikoa honela jasotzea eskatu da: «J. L. Lizundiak Barne-erregelen 67.5 artikulua dioena gogora ekarri du. Bere iritziz, gaietan agertzen dena, hots, Gramatika batzordearena soilik bozkatzea da prozedura, ondorioz, euskaltzain batek eginiko oharra bozkatzea geroratzea eskatu du». Paragrafo berean, J. B. Coyosek «bigarren proiektu hori Gramatika batzordeko kideen parte-hartzerik gabe ez duela ikusten nabarmendu du» esaldia gehitzea eskatu du. Horiek ere onartu dira.

Bozkatzeko erari dagokionez, B. Oihartzabalek eskatu du berak esandako «proposamena barne jardunaldietako prozeduran sartzen baita, eta horrela bozkatzen baitira batzordeen proposamenak jardunaldietan» esaldia gehitzea. Paragrafo berean, bozketara eramandakoaz iruzkinak egin dituzte, P. Salaburuk, M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak. Azkenean, honela jasotzea erabaki da Osoko bilkuran: «Ondorioz, bozketa era honetara bideratu da: a) Gramatika orokor handia eta gramatika txikia Gramatika batzordeak egitea ala b) orain arteko batzordeak bere gramatika orokor handiarekin segitzea eta, aldi berean, beste batzorde edo lantalde ahaldundu batek euskara batuaren eskuliburua prestatzea».

Atal honekin honen amaieran ageri den esaldia («Ondorioz, Gramatika batzordeak...») ezabatzea proposatu dute M. Azkaratek eta J. L. Lizundiak. Esaldi hori ezabatzea onartu da Osoko bilkuran.

Ondorioz, bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2013ko azaroaren 29ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

## 2. Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia onartzea

Euskaltzainburuak hitza E. Osa idazkariordeari eman dio, beronek datorren 2014ko batzar-egutegia, Zuzendaritzak onartua, aurkez dezan. Aurretik J. L. Lizun-

diak idatziz aurkezturiko sei ohar euskaltzainen artean banatu ondoren, irakurri egin ditu. Horietan urteko bilkura erdiak Bilboko Egoitzan egitea eskatu du. Ondoren, E. Osak Zuzendaritzaren proposamenak azaldu eta, kasu batzuetan J. L. Lizundiaren proposamen arabera adostu dira.

Horiek horrela, Euskaltzaindiaren 2014. urteko egutegia ondorengo hau izango da:

- Urtarrilaren 31ko Osoko eta Ageriko bilkurak Bilbon egingo dira. Ageriko bilkuran K. Rotaetxeren hilberri txostena irakurriko da.
- Otsailaren 28ko Osoko eta Ageriko bilkurak Donostian izanen dira.
- Martxoaren 28ko Osoko eta Ageriko bilkurak Bilbon egingo dira. Ageriko bilkuran, 2013. urtean izendaturiko urgazle berriei agiriak emanen zaizkie.
- Apirilean ez da batzarrik izanen.
- Maiatzaren 30ean, Osoko bilkura Donostian izanen da.
- Ekainaren 27an, Osoko bilkura Gasteizen egingo da. J. L. Lizundiak batzarra Olabide ikastolan egitea proposatu du, baina toki eta data horretan, ikasturtearen amaiera delako, eragozpen handiak izanen lirатеkeela azaldu zaio.
- Uztailaren 18an Osoko bilkura Santurtzin egingo da.
- Irailaren 26an, Osoko eta Ageriko bilkurak Nafarroan egingo dira. J. L. Lizundiak bilera Zangozan egitea proposatu du (*Nafarroa Oinez* kontuan hartuz), Nafarroako beste merindadeburuetan bai (Iruñean, Donibane Garazin, Lizarran, Tuteran eta Tafallan, alegia) baina horretan ez baitu Euskaltzaindiak inoiz batzarrik egin. P. Zabaletak Tafalla ez dela merindadeburua gogorarazi dio, baina proposamenarekin bat dator. A. Iñigok jakinarazi du Nafarroa Oinez dela eta, 2000. urteaz geroztik Nafarroako Ikastolen Federazioa eta urte bakoitzean Oinez antolatzea tokatzen zaion ikastola direla Euskaltzaindiari bertaratzea eskatzen diotenak. 2014ko Oinezi dagokionez, informatu du oraingoz ez dela eskaerarik jaso, ez Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik, ezta Zangozako ikastolaren aldetik ere. Horregatik dio, harremanetan jartzen direnean eta egiten duten eskaeraren arabera zehaztu ahal izanen dela nolakoa izaten ahal den Euskaltzaindiaren presentzia.
- Urriaren 31n, Osoko eta Ageriko bilkurak Ipar Euskal Herrian egingo dira. J. L. Lizundiak Ziburun egitea proposatu du, Gazteluzarren 4. mendeurrenkari. Data horren inguruan Munduko Lehen Gerraz jardunaldiak egiteko asmoa dagoela gogorarazi du X. Videgainek eta horregatik bestelako ospakizunak an-

tolatzeko eragozpenak gerta daitezkeela ohartarazi du, baina, edonola ere, proposamen hori aztertu eta geroago zehaztuko dela esan du. Haren galderari erantzunez, P. Charrittoni erantzun zaió Iparraldean gerra handiaz egingen dela sinposioa.

- Azaroaren 29an, Osoko eta Ageriko bilkurak Markina-Xemeinen egingo dira. Ageriko bilkuran Jabier Kaltzakortaren sarrera-hitzaldia egingo da.
- Abenduaren 19an, Osoko bilkura, Donostian, Luis Villasante Euskaren Iker-gunean egingo da.

### 3. Euskaltzaindiaren 2014. urteko behin-behineko aurrekontua aurkeztu

J. Zabaleta kudeatzailea gaixorik dagoenez gero, ez da gaia ukitu, eta aurrekontua hurrengo Osoko bilkurarako utzi da.

### 4. Ardura-uzteak

Gramatika batzordeko ia kide guztiek izenpeturik, dimisioa emanez, idatzia bidali dute Zuzendaritzara. Halaber, I. Sarasolak ere *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoa dela eta, azken urteetan izenpetu duen zuzendari kontratua 2014. urtean berritzeko asmorik ez duela adieraziz, beste idatzi bat bidali du. Horiek horrela, hitza eman zaió Gramatika batzordeburuari.

P. Salaburuk irakurririko testuak honako hau dio: «Gramatika batzordeak Euskaltzaindiari: Gramatika batzordea da Euskaltzaindiko batzorde historikoetako bat. Akademiaren estatutuek zehazten duten gisan, batzorde honen lana da Euskaltzaindiaren zeregin oinarritzko eta nagusietako bat. Hogeita hamar urte baino gehiago aritu da lanean, eta Hondarribian garai hartan agindu zitzaion lana aski modu egokian bete du. Ahalegin horren ondorioa da *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izeneko lan mardula, zazpi liburukitan banatua. Hori da euskal gizarteak gehien baloratzen duen lana, SIADECOK egin dituen azterketetan ageri den gisan.

2013ko martxoan Euskaltzaindiak egin zituen barne jardunaldietan aurkeztu zuen batzordeak hurrengo urteetan egin beharreko lanen proposamena. Proposamen hori oharrak egin zitzaizkion, eta batzordeak berriz ere aurkeztu du proposamena, moldatu ondoren, Osoko bilkuran eztabaidatzeko. Euskaltzaindiak, hala ere, ez du aintzat hartu Gramatika batzordeak mahaigaineratu duen lan egitasmo hori. Batzordeak uste du, hartu den erabakiarekin, Akademiaren konfiantza galdu duela, eta gutxietsia izan dela. Gainera, prentsatik jakin dugunez, zuzendaritzak lehendakariari berriki aurkeztutako plangintzan, ez da gramatika ere aipatzen eta bai, aldiz, gramatikarekin zerikusia duen eta euskaltzainek onartu ez duten beste proiektu bat.

Hori dela eta, behean sinatzen dugun Gramatika batzordekideek erabaki dugu batzordetik dimititzea.

Dena dela, baldin aurrerantzean Gramatika batzordearen lan egiteko modua errespetatzen bada, beti izan den gisan, prest egongo gara erraza izan ez den erabaki hau berriz ere aztertzeke».

P. Salaburuk irakurriko testua P. Salaburuk (batzordeburua), J. M. Makazagak (idazkaria), M. Azkaratek, P. Goenagak, B. Oihartzabalek, J. A. Mujikak, J. Garziak, A. Kingek, I. Lakak, I. Amundarainek eta B. Fernandezek izenpetu dute. Era berean, ondoren, C. Mounolek ere beste idatzi bat aurkeztu du horrekin adostasuna adieraziz eta dimisioa emanez.

Ondoren, I. Sarasolak hitza hartu eta A. Urrutia euskaltzainburuari bidaliriko idatzia irakurri du. Honakoa da edukia: «Jauna: honen bidez adierazten dizut ez dudala datorren urtean berrituko *Euskaltzaindiaren Hiztegia* egitasmoa zuzentzen jarraitzeko kontratua. Ez dakit Beñat Oihartzabalek fedea duen Euskaltzaindian; nik, gaur egun, ez. Ez dut federik Itziar Laka gehiengo zabalez baztertzen duen Euskaltzaindian. Ez dut federik Gramatika Batzordea gehiengo zabalez desmantelatzen duen Euskaltzaindian. Zure gidaritzapean Euskaltzaindia euskaltzale elkarte bilakatzen ari da. Ezin naiz zure konplizea izan bidaia horretan».

A. Urrutiak jakinarazi du Zuzendaritzak, 2013ko abenduaren 18an eginiko bilkuran ondoko proposamenak Osoko bilkurara ekartzea erabaki zuela; batetik, I. Sarasolaren kontratuaren iraunaldia urtearen amaieran amaitzen denez gero, Zuzendaritzak I. Sarasolari gutun bat bidaltzea, batzar honen ondoan iritzia aldatuko ote duen jakiteko. Halere, bilkuran bertan I. Sarasolak bere iritzia ez duela aldatuko adierazi du; bestetik, Gramatika batzordeko kide gehienek dimisioa dela eta, adierazpen instituzional bat egitea. Zuzendaritzak prestatu duen zirriborroa X. Videdgain buruordeak irakurri du eta pantaila batean eman da.

P. Salaburuk esan du berak ez duela horretan parte hartuko. P. Zabaletak, ordea, bai. M. L. Oñederrak ez deritzo egoki adierazpenari, azken 6. puntuari izan ezik. P. Goenagak ez du uste Zuzendaritzak prestatuturiko adierazpena egokia denik, eta, Euskaltzaindia horretarako kondizioetan ez dagoenez gero, berak bozketari uko egiten diola. J. L. Lizundiak dio hori egitea ez dagokiola Zuzendaritzari, eta bestalde lehengo bozketa ez zela horrela egin behar, beraz, ez dator bat. B. Oihartzabalek zail dakusa iritzia aldatzea. Aho batez egiten ez bada, ez du uste adierazpen hori egitea komenigarria denik.

A. Arejitak esan du gertatua gertatu ondoren, jendea Akademiaren adierazpen ofizial baten esperoan dela, eta hor Zuzendaritzak ahalegin bat egin duela zubiak irekitzeko. X. Kintanak esan du Euskaltzaindiaren Barne-erregelen 67.7 artikulua-ren hauste larria gertatu dela, egileek horren damu edo azalpenik ez dutela eman eta horrek eskandalu nabarmena sorrarazi duela euskal gizartean. Horren aurrean jendeari azalpen bat zor zaiola. X. Videgainek ere azpimarratu du esfortzu bat egin duela Zuzendaritzak jada gizartean hedatua dagoen istilua bakebidera ekartzeko.

B. Oihartabalek esan du berdintasuna legezko mailari dagokiola; haatik, lan-tzen diren gaiei edo egiten duten lanei dagokielarik, desberdinak izan daitezkeela euskaltzainak, gehienetan bakoitzak bere espezialitatea baitu. Haren ustez, orain arte hori kontuan hartua izan da, eta ez litzateke errealista orain, lanak antolatze-rakoan, hori hala ez balitz bezala egitea.

J. Lakarrak esan du berak ez zuela botaziorik nahi. Eskerrak eman dizkio Zuzen-daritzari bere borondate onagatik. Zubia, bere ustez, adierazpena litzateke, baina laburra eta garbia, arazoa konpontzeko asmoz egina.

Andoni Sagarnaren ustez, ezin atera daiteke Osoko bilkurak testu bat berretsi gabe. Gogoan hartu behar da aurreko Osoko bilkuran hartu zen erabakia oraindik indarrean dela. P. Goenagari gustatuko litzaioke batzordeño bat egitea Zuzenda-ritzaren eta batzordearen artean. Adierazpen berria egiteko prozeduratzat, Zuzenda-ritzaren proposamenaren testua zatitu, moztu, osatu eta atalka berrosatzea ikusi da egoki. Azkenean, perpausez perpaus, guztien parte hartzearekin, adierazpen berri adostua moldatu da, hedabideen aurrean publiko egiteko.

Ondorioz, Euskaltzaindiaren adierazpen instituzionala era honetara geratu da: «Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak, 2013ko abenduaren 20an Baionako Euskal Museoa bildurik, ondoren datorren Adierazpen ofiziala egitea erabaki du:

1. Osoko bilkurak Zuzendaritzari dei egiten dio Euskararen Akademiaren ba-ruan gogoeta aldia ireki dezan, Gramatika batzordea barne, guztien arteko lankidetzaren areagotzeko eta horretarako egutegia finkatzeko.
2. Euskaltzaindiaren ustez, batzorde guztiak dira balio berekoak eta euskaltzain oso guztiak mailakideak. Guztion artean egiten (eta egingo) dugu Euskal-tzaindia.
3. Osoko bilkurak gogorarazi nahi du azken egunotan gertatu diren tirabirak eta esamesak ez direla mesedegarri Euskaltzaindiarentzat, euskararentzat eta eus-kal kulturarentzat. Artean ere desadostasunak izan direnean, elkarrizketaren bidez gainditu dira».



## 5. Euskaltzaindiaren Historia egitasmoak emanikoa aurkeztu

J. L. Lizundiak, berak hasitako *Euskaltzaindiaren Historia* egitasmoa geroratu arte eginiko aurrelana aurkeztu eta azaldu behar zuen, baina gaurko batzarra hasieran uste baino gehiago luzatu denez gero, astirik ezagatik, urtarrileko batzarrerako atzeratzea erabaki da.

## 6. Eskuaratekoak

**6.1. Euskaltzaindiaren ordezkaria Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeetako Harremanetarako Aholku Batzordean.** Lau urterik behin berritzen den Aholku Batzorde honetarako, Sagrario Aleman euskaltzain eta diruzaina izendatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2013ko abenduaren 3an eginiko bilkuran.

**6.2. Premio Nacional de Poesía Joven «Miguel Hernández».** Udaberrian sari hau abian jartzeko asmorik ez zeukan Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, baina azkenean, horretarako ere diru apur bat izan duela eta, antolatu egin da, eta Euskaltzaindiari eskatu dio epaimahaian Akademia ordezkaturiko duen pertsona izendatzea. Iñaki Mendizabal Elordi proposatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2013ko abenduaren 3an Gasteizen eginiko bilkuran.

**6.3. Euskaltzaindiaren eta HABE erakundearen arteko lankidetzahitzarmena.** Bi erakundeon zeregina aitortzeaz gain, elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

2009ko apirilaren 23an izenpeturiko hitzarmenari segida emanez, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren eta HABE erakundearen HABE Liburutegiaren artean lankidetzahitzarmenak garatzeko konpromisoa berresten da. Lankidetzahitzarmenak ahalbideratuz, barneratzen dituzten funtsen zabalkundea egitera eta funtsen trukea segurtatuz bideratuko dira, bereziki.

Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia elikatze asmoz, HABEk argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz baliatze adostasuna erakusten da, HABE Aldizkarian sortutakoaz batez ere.

## 6.4. Euskaltzaindiari eskuraziko zaizkien argitalpenak

– Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak argitaraturiko Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren edizio berria, euskarazko testuaz gainera (faksimilea eta gaur-

- ko ortografiara egindako egokitzapena) galizierara, katalanera, errumanierara, txinerara, kitxuarra eta arabierara egindako itzulpenekin.
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren V. liburukia* (Paper edo CD euskarrian).
  - *Aiarako Toponimia Nagusia*.
  - *Erlea 7*, literatur aldizkaria.
  - *Euskera* aldizkaria ere, hots, zenbaki arrunta eta ikerketa zenbakia, postaz bidaliko da.

Zein liburu jaso nahi duten jakiteko asmoz, Argitalpen zerbitzutik ohar bat igorriko zaie euskaltzainei. Eskaturiko liburuak urtarrilean Bilbon egingo den Osoko bilkuraren ondoren banatuko dira.

**6.5. Hurrengo bilkurak.** Urtarrilaren 31n Osoko eta Ageriko bilkurak (Karme Rotaetxeren hilberri txostena) egingo dira Bilbon, Akademiaren egoitzan

**6.6. Josu Zabaletak Espainiako 2013ko Itzulpen Sari Nazionala irabazi.** Bazarrean jakinarazi denez, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2013ko Itzulpen Sari Nazionala eman dio Josu Zabaleta Kortaberria idazle eta euskaltzain urgazleari orain arte itzulpengintzan egindako lanengatik. Zorionak bidaltzea erabaki da.

## 7. Azken ordukoak

Ez da egon azken ordukorik.

Ondorioz, Osoko bilkura bukatutzat eman da 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Baionan, 2013ko abenduaren 20an

Jean Haritschelhar (1923-2013), hilberri txostena

Baionako Herriko Etxeko Batzar aretoan, arratsaldeko 15:00etan, Euskaltzaindiak, Jean Haritschelhar zenaren omenezko hilberri txostena irakurtzeko, Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Pierres Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarra, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Erramun Baxok.

Euskaltzain urgazleak: Xipri Arbelbide, Jon Casenave eta Patri Urkizu.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Jean Haritschelharren hainbat senide.

Batzarburu, Andres Urrutia euskaltzainburuarekin batera, Jean-René Etchegaray Baionako lehen auzapezordea ere izan da.

Jean-René Etchegaray Baionako Udalaren lehen auzapezordearen eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren erdal eta euskal mintzaldiek hasiera eman diote ekitaldiari, eta ondoren Beñat Oihartzabalen txanda izan da, berak prestatu baitu hilberri txostena.

*Euskera*. 2013, 58, 1. 259-261. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Jean Haritschelhar Duhalde Baigorri jaio zen, 1923ko maiatzaren 13an eta Biarritzen hil zen, 2013ko irailaren 1ean. Idazlea, euskaltzalea, euskaltzaina, hogeita lau urtez euskaltzainburuorde eta hamasei urtez euskaltzainburu izan zen.

Haren bibliografia akademikoa oso zabala izanik, Pierre Topet Etxahun koplagileaz egindako doktore ikerketa azpimarratu behar da, duen garrantziagatik. Halaaber, Euskaltzainditik eta unibertsitatetik at egindako lanak ere gogoan izan behar dira, hala nola, Herria aldizkariko kolaborazioak, Baionako Euskal Museoan edo euskararen alde egindako beste zenbait.

Beñat Oihartzabalek J. Haritschelharren heriotzak jendeak zion begirunea azaleratu zuela azpimarratu du: «Berehala, udazkenean lau bazterretan hostoak bezala, hedatu zen berria Euskal Herrian gaindi, euskaltzale guziek etxekoekin bat egiten zutela haien nahigabea». Hileta egunean ere, «mundu bat bildu zen Baigorri. Hango eliza, mukuru bete zuten azken agurra egin nahi zioten Euskal Herriko hiru kantoietarik jin euskaltzaleek. Orok garbi zeukaten zerbitzari berezia galdua zuela euskarak, eta euskaldun guziak batzen gintuen norbait itzali zela. Ehorzketa haietan izan zirenek ez dukete ahanztekoa samintasunez eta bihotz berotasunez bete arratsalde hura».

«Euskaldun guziak batzen gintuen» gizonaren biografia erreparatu du ondoren. Bere hastapenak eta lehen ikasketak aipatu ditu, gazte denboran gerra ezagutu zuela gogorarazi: «Nola duda gertakari haiek orok barne-barneraino hunkitu zutela? Ondoko hamarkadetan erakutsiko zuen bakezaletasunak gaztean ikusi dorpekeria haietan zukeen oinarri».

Ikasle eta irakasle bezala egin zuen ibilbidea gogoan izan zuen B. Oihartzabalek, eta, besteak beste, Pierre Topet Etxahun koplagileaz egin zuen lana azpimarratu zuen. «Hogeita hamabost urteak iraganik –esan zuen– Ageneko lizeoan zelarik, hurbildu zen lehen aldikoz euskal gaietara, zeharka bezala gainera, irakasle lagun batek Ageneko auzitegian Barkoxeko koplari birigarro bati zegozkion auzi-paperak bazirela jakinarazi ondoan. Paper haiek eskuztatuz egin zuen Pierre Topeten ezagutza Jean Haritschelharrek, bai eta molde horretan bere lehen aituz ukaldiak eman euskalaritzako alorrean».

Etxahunez idatzi tesiaz honako hau esan du: «Haritschelharren ikerketari esker agerian ezarria izan zen, molderik argienean eta zehatzenean, koplari haren originaltasuna eta indarra, XIX. mendeko herri literaturaren testuinguruan behar bezala kokatzen zelarik. Ereduzko lan horrengatik, eta ondotik egindakoengatik, Euskal Herriko Unibertsitateak Doctor Honoris causa eginen zuen geroago, 1988an».

B. Oihartzabalen esanetan, 1960ko hamarkadaren lehen urteetan «sartu zen osoki Iparraldeko euskalaritza biziartzten duten elkarte edo egitura garrantzi handienekoetan». Hala, *Gure Herrian*, Euskal Museoan, IKAS-en. Eta Euskaltzaindian. Izan ere, 1962ko uztailaren 27an Euskaltzaindiak euskaltzain oso hautatu zuen, «Lafittek bereziki akuilaturik sartu zen Euskaltzaindian», Oihartzabalen hitzetan. Urte hartan, *Gure Herria* aldizkariko idazkari nagusi eta Museoko buru egin zuten.

«Handik aitzina, Haritschelhar erabat ariko zen lanean euskararen eta euskal kulturaren alde». Euskal Museoan, Unibertsitatean, IKER ikergunean... lan esker-egin egin zuen egon zen leku guztietan.

Euskaltzaindian, zer esanik ez. 1966. urtetik 1988ra bitartean euskaltzainburuorde izan zen eta 1989an izendatu zuten euskaltzainburu, Luis Villasantek ordura arte beteriko lekua hartuz. 2004ko abendura arte izan zen euskaltzainburu. B. Oihartzabalek esan duenez, «1988an euskaltzainburugora heltzean, aitzineko urteetan doidoia abiatu hats luzeko ikerketa proiektu handi batzuen akuilatzea izan zuen helburu, hala nola Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Gramatika. Lehen Urratsak, Hiztegi Batua, Euskal Hizkeren Hizkuntz Atlas, hastetik 1995 arte kudeatu zuena, Onomastikako lehen zerrenda sistematikoak, eta Literaturaren Hiztegia. Euskaltzaindiaren batzordekako antolamenduaren bidez, lan garrantzitsua egin zuen urte haietan Euskaltzaindiak, eta erran daiteke gaur egun ere, orduan erein ziren haziek ekarri uztari esker egiten dituela parte on batean bere oinarritzko lan akademikoak gure erakundeak».

Hala, bada, Jean Haritschelharrek egindako lanari jarraipena ematea besterik ez dago: «Euskarak gure hemengo lurraldean legezko ezagutzarik izan gabe partitu da Jean, mundu honetarik, guri dagokigu orain, aspaldi hartua zuen xede haren burutan ateratzea».

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak Jean Haritschelharren heriotzaren inguruabarrean hedabideetan argitaratutakoekin, bai eta jasoriko dolumin idatziekin osaturiko orogarrria eman die senideei, ekitaldia bukatutzat emanez, arratsaldeko 16:00etan.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria